

ASTEARTEA

2019/07/16
7. urtea, 1.092. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €



Aranzadik antolatutako auzolandegietan egin dituzten aurkikuntzen berri eman dute. IRATI URDALLETA LETE

36ko gerraren erresistentzia arrastoak, azalera

Aranzadi elkarteak antolatuta auzolandegiak egin dituzte Belkoain mendian; erresistentzian erabilitako balak, kanoi aztarnak eta abar topatu dituzte //2

Datozen lau urteetarako funtzioak eta soldatak finkatu dituzte

Ibarrako udalbatzak onartu ditu liberazioak eta osatu ditu batzordeak; Zapirain alkatea eta Zubillaga zinegotzia jardunaldi osoan ariko dira //3


Julen Gabirondok irabazi du Azkartasun Sega Txapelketa

Zizurkilen izan da proba; eskualdeko lau segalarik hartu dute parte; Tolosako Mikel Lizartzak hirugarren egin du //7

'Urra' izan da Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketako irabazlea

Alegiako jaien barruan izan dute lehia; Aimar Irigoien zen faborittoa, baina gerrian min hartu eta hirugarren egin du //6

PISU BERRIAK VILLABONAN Bisitatu pisu pilotuak!



Kale Berria 48

3 logela + 2 bainugela 205.000€ tik hasita
Azken etxebizitzak!



Maiatzaren Lehena Plaza

3 logela + 2 bainugela 235.000€-tik hasita Garaje itxiak ere aukeran.

Osalanek dio Fudikeko silikato zenbatekoak ez direla egokiak

Erredakzioa Ibarra

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak lanak eragindako gaixotasuna onartu dio 2018an minbiziaz hildako J.R.B.A. langileari.

Langileak Fudike galdategian egin zuen lan, gaur egun Apatta industrialdean dagoena, Ibarra, eta garai batean Tolosan zegoena. Langileak 17 urte eman zituen bertan lanean.

CCOO sindikatuak eman du albistearen berri, eta esan du berak eskatu ziola ikerketa egiteko Osalari, langilearen izenean. «Osalani bere gaixotasunaren, biriketako kaltzinomaren, inguruko txostena egiteko eskatu genion, bere lanpostuarekin zerikusia ote zuen ikusteko. Langileak bere lana nola egiten zuen azaldu zuen eta antzeko gaixotasunak pairatu zituzten lankideen berri eman zuen. Langile horiek guztiak Tolosako lantokian aritu ziren lehenik, eta Ibarra gero».

Osalanek ikerketa ireki zuenean, Fudike enpresak ezin izan zuen aurkeztu 2012 urte aurreko segurtasunari eta langileen osasunari lotutako dokumentaziorik, CCOO esan duenez. «Horregatik ezin izan da baieztatu enpresak Tolosako lantokiari lotuta ematen dituen segurtasun neurri egokien egiazkotasuna», esan du sindikatuak.

Ezin izan da ere zehaztu lantokian zegoen silikato hautsa zenbatekoa zen. Osalaneko txostenaren arabera, beraz, lantokian neurtutako silikatoa ez da onargarria, eta ez dago kontrolpean, langileen segurtasun eta osasun eskubideak zapalduz.

36ko gerrak utzitako sekretuak azaleratzen ari dira

Eusko Gudarosteak erretiran utzi eta matxinatuek hartu zituzten kanoien kokalekua eta horiek botatako obus zatiak aurkitu dituzte lehenengoz, Belkoain mendiaren inguruan.

Irati Urdalleta Lete Aduna

Aranzadikoak indusketa lanak egiten ari dira Belkoain mendiaren inguruan. 1936ko abuztuaren 28tik irailaren 19ra arte egon ziren bertan euskal gudarien eta matxinoen arteko borrokak. Azken sei urteetan Aranzadi indusketak egiten ari da Adunan, Larraulen, Asteasun eta Zizurkilan eta Eusko Gudarosteak egindako erresistentziaren arrastoak bilatu izan dituzte. Hala ere, aurten aurkitu dituzte lehen aldiz kanoien kokalekuak eta horiek botatzen zituzten obus zatitxoak. Horiez gain, ehunka bala zorro ere aurkitu dituzte.

Bertako baserritarren laguntza oso garrantzitsua izan da lekua non dagoen jakiteko. «Azkenean, Zarateko Bentako Angel Usabiagak ekarri gaitu hona, aitari entzuna ziolako», azaldu dute Aranzaditik. Aranzadikoek azaldu dutenez, errepublikazaleek bi kanoi zeuzkaten eta matxinatu frankistek harrapatu zizkieten. Ondoren, gudariei ehunka jaurtigai botatzeko baliatu zituzten, eta horien arrastoak dira orain aurkitu dituztenak. Horietako batzuk metrailaz beterik daude eta beste batzuk lehergailuz.

Dagoeneko badakite matxinoen armada oso ondo prestatuta zegoela eta hemen herriar xumeak zeudela, Kandido Sasetaren



Indusketen aritu direnen eta udal arduradunen taldeko argazkia. I.U.L.



Aurkikuntzetako batzuk. I.U.L.

komandantzian armatutakoak, baina aurkikuntza horiek garrantzitsuak izango dira jakiteko erresistentziaren mugimendua nola antolatu zen. Uztailearen 1etik 14ra bitartean, hogeitaz inguru aritu dira lanean 36ko gerra garaiko trintxeretan



Aurkitutako batako bat. I.U.L.

Papergintzak Adegiren azken proposamena onartu du

Erredakzioa Tolosa

Gipuzkoako papergintza sektorean 8 eguneko greba deitu zuten ELA, LAB eta CCOO sindikatuek, eta horietatik 6 egin ostean, Adegik egindako proposamena batzarretan bozkatzearen alde egin zuten. Ordura arte egindako proposamenetan patronalak hainbat neurri jarri zituen mahai gainean, baina sindikatuen iritziz ez ziren nahikoa. Azken bileran, ordea, beste hiru neurri gehitu zituen: soldaten KPIa gehi %1,25eko igoera, errelebo kontratuak 2018ko legearen arabera egiteko konpromisoa, eta baimenen hobekuntza, baita guraso bakarreko familientzat ere. Sindikatuek orduan langileen esku utzi zuten erabakia, eta batzarretan bozkatu dute azken proposamenaren alde.

Horiek horrela, eskualdean ere egin zituzten batzarrak eta Amezketako Aralar paper fabrika 56 langilek azken proposamenaren alde egin zuten eta 15k kontra; Berastegiko Munksjön 62k egin zuten alde eta 15ek kontra; eta Zizurkilgo Orian 28k hitzarmena sinatzearen alde egin zuten eta 8k ezezkoaren alde. Eskualdeko papergintzako langileen gehiengoak beraz, Gipuzkoa osoan eman den joerarekin egin du bat. Hau da, Adegik patronalak mahai gainean jarritako azken proposamena onartzearen alde egin dute.

LAB sindikatuak esan duenez, proposamen hau lortzea sektorearen langileen lorpena izan da. «Borroka izan da Adegik sektorean betidanik egon diren eskaerak onartzera eraman duena», esan du. Hitzarmena «azken urte luzeetan lorpen sozial gehien» dituen dela dio.



Etxebizitza aukeren inguruko datuen aurkezpena, gaur

ANOETA // Udalak martxoan abiarazi zuen etxebizitzaren afe-rari buruzko prozesua, eta hurrengo urratsa gaur emango dute. Herrian duten etxebizitza aukera desberdinen inguruko analisia egin dute Dunak taldeko arkitektoek eta gaur aurkeztuko dituzte ondorioak 18:30etik aurrera, liburutegian.

Aterki zaharrak bilduko dituzte ostirala bitarte

IBARRA // San Inazio auzoko jaiak ospatuko dituzte uztailearen 27tik 31ra eta horren barruan aterkiak birziklatzeko tailerra egingo dute hilaren 27an bertan, 11:00etatik aurrera. Tailerra egin ahal izateko, ordea, aterki zaharrak bildu nahi dituzte eta ostirala arte utzi ahal izango dira Ibarako kultur etxean.

Helduen danborradan parte hartzeko aukera

IBARRA // Urtero bezala San Bartolome jaietan helduen danborrada egingo dute eta izen ematea ireki dute jada. Uztaileak 21 izango da izena emateko azken eguna eta Danon, Txumitxa, Atari eta Zubiaurre tabernetan egin daiteke. Entseguak abuztuaren 19 eta 20an, 20:15ean plazan, eta abuztuaren 22an, 17:30ean Azkuen, izango dira.

Iraila erdirako amaitu nahi dituzte Uzturpe Ikastolako lanak

Irailean ikasle guztiak eraikin barruan egotea izango da helburua; opor garaian, obrak direla eta, ikastolako patioa erabat itxita egongo da

Erredakzioa

Iazko ikasturte hasieran izandako egitura arazoak konpontzeko lanekin hasi berri dira Uzturpe Ikastolan. Hori dela eta, obra lanek irauten duten bitartean ikastolako patioa itxita egongo da segurtasun kontuengatik.

Ikastolatik gurasoei mezu bat zabaldu diete, azalpenak emanez: «Ikasturte berriari begira 4 zutabeak egonkortu eta denok eraikinean egon ahal izateko lanean aritu gara. Eraikinari jarraitzen ari gara, konponketa lanen proiektua gauzatu eta obra baimenak lortu ondoren, hasi dira

zutabeen egonkortze lanak», azaldu dute.

Egonkortze lanak, pitzaduren konponketa eta barruko egokitzak irailaren erdirako amaitzea aurreikusi dute. Hori horrela, LH 4tik gorako ikasleek gela modularretan hasiko dute ikasturtea eta ahalik eta azkarren guztiak eraikin eraberrituan egotea espero dutela esan dute.

Uzturpe ikastola iazko irailaren 6an mugitu zen. Ordu ezkerro, ikastolako hegala horretan sartzeko aukerarik ez dute izan eta hamahiru taldek patioan jarri zituzten gela modularretan pasatu dute ikasturtea.



Uzturpe Ikastolako hegala batean lurra zulatzeko ari dira. I. SAIZAR

Larresoroko jaietarako izen ematea, zabalik

Erredakzioa

Urteak daramatzate Lapurdiko Larresoroko eta Leaburu-Txaramako herriarrek hartu-emanetan. Maiatzaren erdi aldera etorri ziren azkenekoz Senidetze Eguna ospatzera Larresoroko herriarrak, eta datorren iganderako Lapurdira irteera antolatu du Leaburuko Udalak.

Larresoron harri-zubiko jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan, eta udalak autobusa jarriko

du herriarrentzat. 09:45ean aterako Leaburutik eta 10:00etan jasoko ditu txaramarrak.

Larresorora iristean, 11:00k aldera, bertso pilota izango da; 12:30ean zintzur bustitzea eta toka txapelketa antolatu dituzte eta 13:30ean bazkaltzera eseriko dira. Arratsaldean, 17:00ak aldera, zozketa, taloak eta erromeria edukiko dituzte.

Ostirala baino lehen eman behar da izena udal bulegoetara deituta: 943 67 5931.



Pasa den asteko asteartean egin zuten osoko bilkura Ibarako udaletxean. I. SAIZAR

Agintaldi berriko lanak zehaztu dituzte Ibarako Udalean

Datozen lau urteetan ere bi hautetsi liberatu izaten jarraituko du udalak: Igor Zapirain alkatearekin batera Nagore Zubillaga alkateordea arituko da jardunaldi osoan

Irati Saizar Artola Ibarra

Pasa den astean Ibarako udaletxean egindako osoko bilkuran, udaleko funtzionamenduari eta udal organoen eraketari buruzko hainbat gai erabaki ziren. Aurrez, orde, ekaina erdialdean ez ohiko osoko bilkura egin zuten alkateordearen izendapena eta ordezkari politikoen liberazioen eta ordainsarien inguruan.

Azken agintaldian bezala, oraingoan ere bi hautetsi liberatu izango ditu Ibarako Udalak, erabateko dedikazioan: Igor Zapirain alkatea eta alkateorde izendatu duten Nagore Zubillaga. Alkateak urtean 54.294,66 euro gordin jasoko ditu; Zubillagak, berriz, 40.908,34 euro gordin urtean.

Puntu horretan, EAJko lau kideak abstenitu egin ziren, eta EH Bilduko 6 ordezkariak eta PSE-EEkoak alde bozkatu zuten. Zinegotzi sozialistak bere arrazoiak eman zituen: «Eudelek esandakoa betetzen dute soldata horiek; kudeaketa publikoko karguak betetzen dituzten per-

tsonek ez dute inolako gabeziarik izan behar, eta horretan jarduteak ez ditu aurretik izandako lanpostuetan zeuden baldintzak gutxitu behar, modu honetan, baloraturik ez dagoen lan honi balio bat ematen zaio».

Horrez gain, talde politikoei hilean 100 euro bideratuko zaizkie eta talde politikoetako kide bakoitzak hilean 200 euro jasoko ditu. Batzordeetako asistentzia bakoitzagatik 150 euro bideratuko zaizkio zinegotzi bakoitzari, udalbatzara joateagatik 100 euro eta gobernu batzordeetara joateagatik 200 euro.

BATZORDE INFORMATZAILEAK

Besteak beste, batzorde informatzaileak eratu zituzten azken bilkuran eta batzordeburuen berri eman zuten. Denera, lau batzorde osatu dituzte eta Igor Zapirain honako bi batzordeetako burua izango da: Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, Ingurumena, Merkataritza eta Nekazaritza, eta Ogasuna eta Pertsonala.

Nagore Zubillaga izango da gainerako bi batzordeetako bu-

rua: Gizarte zerbitzuak, Aniztasuna, Politika Feministak eta Hirugarren Adina, eta Kultura, Gazteria, Hezkuntza, Euskara eta Kirola. Batzorde buruez gain, zinegotzi guztiak izango dira batzordeetako kideak eta bi hilean behin bilduko dira.

KIDE ANITZEKO ORGANOAK

Ibarako Udalak ordezkaturik egon behar duen organoetako ordezkariak hau onartu du udalbatzak: Igor Zapirainek, Tolosaldea Garatzen, Tolosaldeko Mankomunitatea, Ur Kontsultazioa, Apata Industrialdea Kontserbatzeko Hirigintza Intereseko Taldea, Tolosaldeko Apataerrekia Industria Lurra, Apataerrekia Industriagunea eta Udalbiltzan izango ditu ordezkariak; Cristina Martinezek, Loatzon Musika Eskolan; Aitor Gimenezek, Hiltegiko Mankomunitatean eta Tolomendin; eta Nagore Zubillagak, Euskal Fondoan.

Azkenik, aipatu ohiko osoko bilkurak bi hilez behin egingo direla, bigarren asteko ostegunetan, 19:00etan.



Goitibehera jaitsierak irudi ikusgarriak utzi zituen; tartean, erorikoak ere izan ziren, abiadura biziaren ondorioz. ASIER IMAZ

Heldu da txintxarria erretzeko momentua

Ostiralean hasi ziren Alegiako Karmen jaiak, eta gaur ospatuko dute egun handia. Egunero, era guztietako ekintzak izan dira, baita Bibalabirjen festetan ere.



Jolasetan aritu ziren gazteak, eta haurrek ederki pasa zuten apar festan. Atzo, antzerki saioa izan zen plazan. A.I./I.U.

Erredakzioa

Ostiralean, suziria lehertzearekin batera eman zieten hasiera, Alegiako Karmen jaiak. Aurten, inoiz baino luzeagoak izan dira, eta era guztietako ekintzez gozatzeko aukera izan da egunero.

Asteburuak, irudi ederrak utzi dizkigu Alegian. Ostiralean, haurrak futbolekin eta erraldoien aurretik korrika ibili ziren. Bitartean, Bibalabirjen jaietan, gazteek, moztarrok soinean jantzita, jolasarako tartea hartu zuten. Igandean amaitu ziren festa alternatiboak. Larunbatean, berriz, goitibehera jaitsiera ikusgarria izan zen, 29 parte hartzaileekin.

JOLASLEKUA APARREZ BETETA

Igandean, aparrak hartu zuen Alegiako eskolako jolaslekua. Haurrentzako parkean puzgarrietan jolasean ibili ondoren, apar festa izan zuten. Haur eta gaztetxoak bainujantzia eta uretako betaurrekoak jantzita apar artean igerian ibili ziren, gozatu ederra hartuz. Eguraldia lagun, dozenaka lagun elkartu ziren.

Atzo jarraitu zuten festa giroan herritarrek. Erretirodunentzako ibilaldia eta hamaiketakoak izan ziren, eta haurrek antzerki saioa eskaini zuten. Gaur, Karmengo amaren eguna ospatuko dute. Tartean, txaranga, saskibaloitxapelketa, dantza saioa eta zahagiardoa izango dira. Gaurdian amaituko dira festak, txintxarriaren erretzearekin.

ALEGIAKO FESTAK 2019

Uztailak 16, asteartea

Karmengo Amaren Eguna

09:00. Diana: Patxaranga txaranga.

09:00. 3X3 saskibaloitxapelketa eskolako patioan. Kadete, infantil eta alebin mailak.

12:30. Sutarridantza taldearen emanaldia plazan. Ondoren, Patxaranga txaranga kaleetan zehar.

18:00. Umeentzat jokoak herriko gazteen eskutik, eskolako patioan.

19:30. Erromeria: Harresi taldea.

21:00. Zahagiardoa plazan.

23:00. Erromeria: Harresi taldea.

00:00. Txintxarriaren erretzea eta jaien amaiera.



Egundoko auto azoka

Aukera bakarra irekiera dela eta

Autoaren garbiketa eta azterketa doan. Auto berri, aukerako eta erdiberriak

Uztailaren 18, 19 eta 20an soilik Iñauti Industrialdean, Olaberrian



Asteasun, iparra aurkitu nahian

Ostegunean lehertuko da suziria Asteasuko Santamaña auzoan, festei hasiera emateko. Aurrez, baina, giroa berotzen joateko, II. Orientazio Proba egin zuten larunbatean.

Erredakzioa

Iaz izan zuen arrakasta ikusita, aurtun ere orientazio proba herrikoia egitea erabaki zuten Asteasuko Santamaña auzoan. Ostegunean hasiko diren festen aurretik, giroa berotzeko baliatu zuten asteburua. Adin guztietako auzotarrek hartu zuten parte proba dibertigarrian. Banaka, bikoteka nahiz taldeka aritu ziren parte hartzaileak. Hiru proba mota izan ziren: luzea, ertaina eta motza. Amaieran, anoa postua egon zen partaideentzat.

TRIKITI DOINUEZ BETEAU DATOZ

Santamaña auzoko festak, ordea, etzi hasiko dira, igandera arte luzatuko direlarik. Goizean izango da txupinazoa eta meza-
ren ondoren, hamaiketako egingo dute. Lehen egunean, gazteen herri kirol saioa nahiz bertsolariak izango dira. Larunbatean, berriz, haurrentzako tai-

2019KO SANTAMAÑA AUZOKO FESTEN EGITARUA

Uztailak 18, osteguna

10:30. Txupinazoa.

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Hamaiketako.

13:00. Herri kirolak, bertako gazteen eskutik.

Ondoren. Bertsolariak: Jexux Mari Irazu eta Anjel Mari Peña-garikaño. Bitartean, giroa alaitzen, Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitilariak.

17:30. Kalejira.

Gauean. Izer, Alabier eta Lutxurdio.

Uztailak 20, larunbata

12:00. Haurrentzako tailerrak.

14:00. Herri bazkaria, Ostolaza eta

Ezkerra trikitilariekin.

18:00. Zezen txikiak.

Gauean. Ostolaza eta Ezkerra trikitilariak.

Uztailak 21, igandea

11:30. Meza nagusia.

Ondoren. Herri kirolak. Aizkoran Aratz Mugertza eta Julen Kañamare eta harri jasotzen Aimar Irigoi. Segidan, Laja II eta Lutxurdio trikitilariak.

18:00. Erakustaldia: Herriko Harri tira taldea eta astoa. Afal aurretik, Tranpazuloren jaitsiera eta Laja II eta Lutxurdio trikitilariak.



Mapak eta azalpenak aintzat hartuta, Santa Marina ermita inguruko bideetan ibili ziren II. Orientazio Probako partaideak, larunbatean. ASIER IMAZ

VILLABONA

UZTAILAREN 18tik - 21era

ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEA

VILLABONAKO UDALA

VARAGARDO AZOKA

23

FERIA DE LA CERVEZA

ORDUTEGIA:

18.00 etatik

1:00 etara

Lehen lau sailkatuetatik hiru eskualdekoak, G2H proban

Ion Azpirozek irabazi du 88 kilometroko proba; Goar Lopetegi bigarrena izan da helmugan

Erredakzioa

Asteburuan Ehunmilak probaren inguruan hiru lasterketa jokatu dira Beasainen. Goierriko 2 Handiak, Marimurumendi mendi maratoia eta Ehunmilak. Eskualdeko ordezkariak lehen horretan nabarmendu da. Gizonezkoetan, lehen lau sailkatuetatik hiru eskualdekoak izan dira.

88 kilometroko ibildia du G2H lasterketak, 6.000 metroko penditzarekin. Ion Azpiroz izan zen helmugan azkarrena, 10 ordu minutu bat eta 51 segundoko denborarekin. Berastegiarrak

probaren marka ezarri zuen aurrekoa zortzi minututan onduz. Dani Agirrek jarri zuen 2016an orain arteko errekorra.

Ion Azpirozen atzetik Goar Lopetegi helmugaratu zen. Ibartarren denbora 10 ordu eta 21 minutukoa izan zen, hau da, berastegiarrak baino 19 minutu eta 40 segundo gehiago behar izan zituen 88 kilometroak egiteko.

Podiuma Alvaro Ramosek osatu zuen. Laugarren sailkatua eskualdeko beste ordezkari bat izan zen: Xabier Mujika alkizarra, 10.51.56ko denborarekin.

Ehunmilak proban eskualdekoen parte hartzea xumeagoa izan zen. 168 kilometro egin behar zituzten parte hartzaileek eta Tolosa eta Amezketa zeharkatu zituzten, besteak beste. Sailkapenari begiratuta, Txomin Etxeberria ibartarra 35. postuan ager-



Ion Azpiroz eta Goar Lopetegi helmugan. GOIERRIKO HITZA

tzen da, 29 ordu, 42 minutu eta 40 segundoko denborarekin. Jon Aizpuru irabazleak baino 7 ordu eta 20 minutu gehiago behar izan zituen ibilbidea osatzeko Etxeberriak.

Marimurumendi mendi maratoian eskualdekoek emaitzak oparagoak izan ziren. 42 kilometroko lasterketa, gizonezkoetan, Samuel Davila kataluniarak irabazi zuen. Iñaki Insausti tolosarra seigarrena izan zen, hiru ordu, 55 minutu eta 36 segundoko denborarekin. Tolosaldeko 3 Tontorrek lasterketaren antolakuntza taldean dago Insausti eta lehen hamarren artean sartzeko helburua bete zuen atzetik aurrerako lasterketa eginez.

Eskualdeko beste ordezkari bat zortzigarren postuan sartu zen: Mikel Senperena. Abaltzisketako korrikalaria lau orduko mugatik gora geratu zen, nahiz eta minutu bakarragatik izan. Helmugan, Senperenak, irabazleak baino 32 minutu eta 23 segundo gehiago behar izan zituen. Ekai Irizar anoetarra 18. sailkatu zen.

Alegian, Mikel Lopetegi 'Urra' geratu da txapeldun

Aimar Irigoienek hirugarren amaitu du, arazo fisikoak izan ondoren; Urruzuno izan da bigarrena

Irati Urdalleta Alegia

Alegiako Larraitz auzoko plazan jokatu zen Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa, igandean. Zazpi harri-jasotzailek hartu zuten parte, eta lesio moduan ezustekoa izan zen. Txintxarri Saria irabazteko faborito nagusienetakoak gerrian min hartu eta proba amaitu arren, ez zuen bererik eman. Azkenean, Aimar Irigoienek hirugarren amaitu zuen. Txapelduna Mikel Lopetegi Urra izan zen.

Ezustekotik gutxi duen garai-pena izan zen Urra-rena. 22 urteko gaztea punta-puntako harri-jasotzailea da, eta Euskal Herriko bigarren txapela jantzi zuen Alegian. Horretarako, 114 jasoaldi egin zituen 13.337,5 kilo jasoaz. Zehazki, 33 aldiz altza zuen errektangularra, 35 aldiz kopa, 19 bider kubikoa eta 27tan bola hiru

minutuko txandetan. Bigarren postuan Inhar Urruzuno sailkatu zen. 104 jasoaldi lortu zituen Urruzunok, guztira 12.112,5 kilo jasoaz.

Hirugarren gelditu zen ezinean ibili zen Aimar Irigoien, 100 jasoaldi eginda eta 11.662,5 kilo igota.

Laugarrena Hodei Irureta-goiena Izeta IV. na izan zen, 98 jasoaldi eta 11.262,5 kilorekin. Bosgarren gelditu zen Iñigo Eizagirre, 90 jasoaldirekin eta 10.437,5 altxata. Seigarren postua, 81 jasoaldirekin eta 9362,5 kilo jasota, Xabat Olaizolarentzat izan zen. Imanol Albizu, berriz, erretiratu egin zen, bizkarrean izan zituen arazoengatik.

Harri-jasotzaile bakoitzak hiru minutuko txandan ondoren harriak jaso behar izan zituen: 125 kiloko errektangularra; 125 kiloko kopa; 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola.

Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa edo Txintxarri Saria Alegiako festen barruan jokatu zen, eta Larraitz auzoko plazak, urtero bezala, herri kirol zaletu asko bildu zituen. Harri-jasotzai-

leek, lesioak lesio, maila oso polita eskaini zuten eta denak gusturaz utzi zituzten.

Antolatzaileek laguntza jasotzen jarraitzen baldin badute, eta horretarako indarrak aurkitzen baldin badituzte, berriro ere Alegiako festetan izango da gorengo mailako herri kirolez gozatzeko aukera.



Mikel Lopetegi 'Urra' txapelduna lanean. IRATIURDALLETA



Igandean Alegian lehiari aritu ziren zazpi harri-jasotzaileak. IRATIURDALLETA

Aitor Regillaga eta Izaro Rubio izan dira azkarrenak Santamañan

107 korrikalarik hartu dute parte jaien barruan jokatzeko den lasterketan

Irati Urdalleta Asteasu

XIX. Santamañako kros igoera jokatu zen igandean. Guztira, 107 korrikalarik hartu zuten parte, horietatik 47 asteasuarrak. Iaz bezala, gizonetako Aitor Regillaga izan zen azkarrena, 28.13ko denborarekin. Bere atzetik Raul Gomez eta Haritz Garin sailkatu ziren. Emakumezkoen dagokionez, 22 parte hartzaile



Aitor Regillaga helmugan. I. URDALLETA

aritu ziren eta Izaro Rubio izan zen azkarrena, 34.24ko denborarekin. Lourdes Colomo eta Maialen Loyok osatu zuten podiuma.

Reala eta Eibar txapelaren bila

Erredakzioa Tolosa

III. Euskal Herria Txapelaren finala abuztuaren 10ean jokatu da Tolosako Berazubi estadioan. Periko Alonsok emango dio txapela txapeladunari.

Futbol partida 20:30ean hasiko da eta ETB1ek zuzenean emango du. Reala eta Eibar izango dira III. Euskal Herria Txapelaren finalistak, sailkapeneko lehenengo bi postuetan amaitu eta

gero. Sailkapen hori egiteko ligaren elkarren aurka jokatuak partidak hartzen dira kontuan. Finaleko sarrerak salgai daude dagoeneko on-line (helbidea ataria.eus-en).

Gerora salgai izango dira Realaren dendetan eta Eibarko Ipueruako Orsaixan dendan.

Partida egunean, abuztuaren 10ean, leihatilan salgai izango dira saldu gabe gelditzen diren sarrera guztiak.

Gabirondok jantzi du Zizurkilen txapela

Gipuzkoako Azkartasun Segatxapelketa jokatu da; eskualdeko lau ordezkari izan dira

Erredakzioa Zizurkil

Gipuzkoako Azkartasun Segatxapelketa jokatu zen larunbatean Zizurkilen. Zortzi segalarik parte hartu zuten txapelketan, horietatik erdiak eskualdekoak. Aurrena kanporaketa jokatu zuten eta ondoren finala. 100 metro karratuko sailean hasi ziren zortzi segalariak. Belarra azkar moztea bezain garrantzitsua zen lanak txukun egitea. Azkarrena Julen Gabirondo izan zen, oso indartsu zegoela erakutsiz. Larraitzen Gipuzkoako Ohiko Segatxapelketa irabazi zuen urnietarra izan zen lanak amaitzen azkarrena. Iban Pardo bigarrenari 19 segundoko aldea atera zion kanporaketan, penalizazioak kontuan hartuta.



Zizurkilen lehian aritu ziren zortzi segalariak sari banaketa ekitaldian. A. IMAZ

Mikel Lizartza tolosarra izan zen hirugarren sailkatua eta Suharri Irazustabarrena laugarrena. Finalatik kanpo, hiru segundogatik, Arkaitz Arteaga baliarraindarra geratu zen. Jon Otegi, Peio Argia zizurkildarra eta Joakin Garmendia anoetarra izan ziren azken sailkatuak. Azpimarratzekoa Joakin Garmendia 74 urterekin txapelketan ikusi izana.

Finalean lau segalariak beste 100 metro karratuko saila moztu behar zuten. Aurrekoan ez bezala, hemen azkarrena Iban Pardo

izan zen. Penalizazioak tarteko, ordea, Julen Gabirondori eman zioten denborarik onena epaileek, Pardo bigarren lekuan gelditu zelarik. Mikel Lizartza tolosarra bikain ibili zen eta hirugarren postuan amaitu zuen txapelketa. Irazustabarrena izan zen laugarren sailkatua.

Sari banaketa ekitaldian Andoni Goikoetxea eta Aitor Esnaola gogoan izan zituzten. Bi segalariak espetxean dituzte, baina sega mundua alboan dutela ikusi zen larunbatean Zizurkilen.



TOLOSA AUERRERA OSPAKIZUNETAN

Tolosa Aurrera Pilota Elkartea garai berriak bizitzen ari da, erronka berriekin. Larunbatean elkartearen eguna ospatu zuten lehen aldiz. Beotibarren inguruan antolatu zituzten ekitaldiak, baina mendira joateko tartea ere atera zuten. Egunari amaiera emateko bazkaria egin zuten Tolosa Aurrera Pilota Elkarteko kideek. A. IMAZ

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2019KO UZTAILAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

ASTEARTEA 16

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Karmen eguna: 09:00etan Patxaranga txarangarekin diana eta 3X3 saskibalo txapelketa eskolako patioan (kadete, infantil eta alebin mailak); 12:30ean Sutarri dantza taldearen emanaldia, plazan, eta ondoren, Patxaranga txaranga kaleetan zehar; 18:00etan umeentzat jokoak herriko gazteen eskutik, eskolako patioan; 19:30ean Harresi taldearekin erromeria; 21:00etan zahargar-doa plazan; 23:00etan Harresi taldearekin erromeria; eta 00:00etan Txintxarria erre eta jaiak agurtuko dira.

Anoeta. Herriko etxebizitza aukeren inguruan egindako analisiaren aurkezpena 18:30ean, liburutegian.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur.

Giro lasai baina hodeitsua. Egun osoz ipar-haizea ibiliko denez, hodei ugari pilatuko zaizkigu zeruan eta eguzkiari traba dezente-koa egingo diote. Hala ere, ez da euririk espero eta giroa lasaia izango da. Termometroak balio atseginetan kokatuko dira, bero handirik gabe eta maximoa 23-25 gradu bitartean errendituko zaigu.



Bihar.

Giro motela. Ipar-haizearen eraginez behe-hodeiek zerua estaliko dute eta giro ilun eta triste nagusituko da. Hodei hauek tarteka euri langar pixka bat utziko dute, nahiz eta, oso gutxi izango den eta egunaren gehienan aterituko dion. Termometroak koskatxo bat behera egingo dute, eguneko erdiko orduetan 22-24 graduan joaz goia.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
16:30. Elkarrizketa (Ibon Gaztañazpi).
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:15. Ireki Kaxa (Gogoko).
22:45. San Pedoren ibilbidea Bermeon.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa.

Eduene Bengoetxea Aiestaran.
Kale Nagusia, 7.
Telefono zenbakia: 943 67 06 48.

Gaukoa.

Lourdes Azpiroz Galarza.
Amarotz auzoa, 9.
Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95 · ataria@ataria.eus



BIDAIA 50EKO HAMARKADARA

Irura Bizi elkarteak antolatuta jaia izan zuten ostiralean. 1950. urte inguruko Irura nolakoa zen azalduz bisita antzeztua egin zuten lehenik, eta poteoa zein afariaren ondotik, Sabin Guarestiren musika emanaldia izan zuten. Antzerkiarekin belaunaldien arteko transmisioa irudikatu nahi izan zuten eta plazatik abiatuta, elizako arkupeak, garai batean errota zegoen tokia, Lumane ingurua eta garbilekua zeharkatu zituzten. ATARIA



zozketak

Atarikideentzat **bi bazkari bikoitz** ditugu



Villabonako
23. Garagardo
Azoka

Uztailaren 18tik 21era

Zozketan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**



'Tolosaldeko Ataria'-ko kolaboratzailea izan nahi?

'Tolosaldeko Ataria'-k komunikazio proiektuan parte hartzeko aukera eman nahi dizu. Ikasturte berriarekin kolaboratzaile, iritzi emaile, irrati saio gidari edota komikigile izan nahi baduzu, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edota deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Gustuko duzun hori egiteko aukera zabaldu nahi dizugu, ez galdu aukera!

